

SAILBURUA
LA CONSEJERA

AGINDUA, 2017KO AZAROAREN 20KOA, LAN ETA JUSTIZIA SAILEKO SAILBURUARENA, GIZARTEARI ESKAINI BEHARREKO FUNTSEZKO ZERBITZUAK BERMATZEKO, HAIN ZUZEN ERE EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREAN ETA BERTAKO ERAKUNDE AUTONOMOETAN AZAROAREN 22RAKO –GOIZEKO 11:00ETATIK 14:00AK ARTE– DEITU DEN GREBA DELA ETA.

ELA eta LAB sindikatuek greba-deialdia egin dute 2017ko azaroaren 22rako, goizeko 11:00etan hasi eta 14:00ak arte izateko asmoz, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrean eta bertako erakunde autonomoetan.

Hona grebaren helburuak, deialdia egin duten sindikatuen arabera: *“Bitarteko funtzionarioen tasa % 8ra arte jaitea, sindikatuekin adostutako kontsolidazioko prozesu integral baten bidez, eta, horretarako, langileen egoera kontuan izanda. Subkontratazioak bertan behera uztea, hain zuzen ere mahai orokorrean adostu zena betetzeko. Lapostuen zerrendak eta horien edukia erreallitateara egokitzea. Orain arte galdutako eros-ahalmena berreskuratzea. Mediku-bajak oso-osorik ordaintzea. Erretiroa hartzea erraztea eta horretan laguntzeko neurriak berriz indarrean jartzea (erretiro partziala, Itzarritik kopuruak jaso ahal izatea, erretiroa hartzeko laguntzak).*

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin-berdin babesten du greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizitza, osotasun fisikoa, osasuna, hezkuntza, joan-etorri askea, eta informazio-askatasuna, besteak beste. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea herritarren gainerako oinarrizko eskubideen kontrakoa izan daitekeenez, eta Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera, gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak mantentzen direla ziurtatzeko neurri egokiak hartu behar dira, auzitan dauden eskubideetako bat bera ere gauzatu gabe gera ez dadin.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarrizko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela, eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete behar ditu neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo “egokitasun-judizioa”; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo “premia-judizioa”; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, “proportzionaltasun-





judizioa, zehazki ulertuta". Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzat funtsezko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta, ondorioz, nahitaezkoa dela interes desberdinak kontuan hartuta egoki orekatuz jokatzeko. Alegia, ziurtatzeak berme gisa balio behar du, eskubide kontrajarrien artean ezinbestean lortu beharrekoa den koordinazioa oinarri hartuta; betiere ulertuta grebalariei eskubidea mugatu beharko dela –amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan–, haien eskubideak grebaren bidez babesteak ezinbesteko zerbitzua jasotzeko eskubidearen komunitate/pertsona titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalariei errebendikazio edo eskakizunen arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, greba-deialdi honen aurrean, haren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan; hau da: alde batetik, iraupena –hiru ordu–, eta, bestetik, jarduera-eremua, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra eta bertako erakunde autonomoak.

Adierazitakoa dela-eta, eta kontuan izanda Konstituzioaren 15, 43.1, 19, 27 eta 35. artikuluetan bizitza, osotasun fisikoa eta morala, osasuna, hezkuntza, lurraldeko joan-etorri askea eta informazioa babesten direla, eta herri-agintariei dagokiela eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarriz eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz, eskubide horiek guztiak ezin daitezke babesik gabe geratu, greba egiteko eskubidea zilegi bada ere. Horren guztiorren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak gutxieneko zerbitzuak ezarri beharra dauka, gizartearentzat funtsezkotzat jotako zerbitzuak eskainiko direla bermatzeko, eta oinarrizko eskubideak bermatzeko beharrezkoak badira.

Larrialdietarako eta bide-segurtasuneko zerbitzuek (SOS DEIAK, esku-hartzeko zerbitzuak, Trafikoa Kudeatzeko Zentroa) gizartearentzat erabat beharrezkoak diren premiak bideratzen dituzte, eta, beraz, funtsezko zerbitzutzat hartzen dira, hain zuzen ere larrialdi bat ez behar bihurtzea saihesteko daudelako. Beraz, horiek mantendu egin behar dira horretarako beharrezkoak diren langileekin.

Adierazitakoa dela-eta, eta ikastetxe publikoei dagokienez, lehenik eta behin, kontuan hartzekoa da hezkuntza funtsezko eskubidea dela, eta Konstituzioaren 27. artikulua halakotzat jotzen duela, eskubide hori zentzu zabalean harturik; hau da, pertsonen bizitza osoan indarrean dagoela aintzat hartuta, eta, hortaz, existentziaren lehen urteak ere barnean hartzen dituelarik, non hezkuntza-zerbitzua ematea beharrezkoa baita haurren garapen integrala ahalbidetzeko. Unibertsitate-hezkuntza ere barnean sartzen da, Konstituzio Auzitegiak 26/1987, FJ 4., a) epaian adierazi zuen bezala: "hezkuntzarako oinarrizko eskubidearen tratamendua, unibertsitate-arloan, ez da geratzen ezinbesteko zerbitzuen zehaztapenetik kanpo, ikastetxe horietan lan egiten duten langileak greba-eskubideaz baliatzen diren kasuan. Horren ondorioz, ezin da baieztatu funtsezko zerbitzu horiek zehaztea Espainiako Konstituzioaren 28. artikulua (Grebarako eskubideaz) kontrakoa dela."

Jokoan dauden eskubideen garrantzia bermatuko duten gutxieneko zerbitzuak ezartzeari dagokionez, nahitaezkoa da ikastetxeak irekita egotea, ikasleentzat, eta





beharrezkoa ere bai, lanerako eskubidea –Konstituzioaren 35. artikuluan onartua– gauzatu ahal izateko. Horregatik, gobernu-agintaritzak gutxieneko zerbitzutzat jotzen du ikastetxeetarako eta lotutako eraikinetarako sarrera-kontrola bermatzea, gutxienez irakasle jardutea erabakitzen duten langileen sarrera bermatze aldera, eta baita ikasleen sarrera ere; hain zuzen ere, zentroak irekiko ez balira, lanerako eta hezkuntzarako eskubide korrelatiboa guztiz eta bidegabeki eragotziko litzatekeelako.

Unibertsitatez kanpoko ikastetxeak irekitzeko beharrizan bakarra ez da «ikastetxea irekitzea» jarduera material gisa; aitzitik, irakaskuntza-egitekoaren edo jardueraren ezinbesteko «funtzionamendu-errutinak» gauzatu behar dira, ikastetxe horietako instalazio edo materialei lotuak; izan ere, ikastetxe haietara ikasle adingabeak joaten direnez –adingabeei ezin zaie helduei eskatzen zaien heldutasun-maila bera eskatu haien jardunean, eta horren ondorioz, ikastetxearen erantzukizuna ezin da guztiz baztertu (Auzitegi Gorenaren 2002ko apirilaren 14ko Epaia)–, berebiziko arreta eskatzen da ekiditeko modukoak diren arriskuak ezabatzeko edo murrizteko, instalazioak behar bezala edukiz eta mantenduz, baita zaintzeko eta kontrolatzeko lanak eginez –irakaskuntza- edo prestakuntza-jarduerak garatzen diren egoitza batean adingabeak edo ezgaiak zaintzeko ardura hartzen badira [...] arreta berezia jarri behar da haien nozitu lezaketen edozein lesio edo kalte saihesteko (Valentziako Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren urriaren 23ko Epaia, 1526/2009 zenbakikoa (Administrazioarekiko Auziak, 1. sek.)). Esandako horren ondorioz, ikastetxe horietan, gutxieneko zerbitzu gisa, grebak dirauen artean mendeko langileen plantillako pertsona batek egon beharko du.

Hezkuntza-esparru horretan bertan, aipamen berezia merezi du Zumarragako Ibaiondo ikastetxeak, epai bidez eskubideak murriztuta dituzten adingabeekin ari baita lanean; kasu horretan, greba-deialdi honetan eta beste batzuetan jarduteko moduak banan-banakoa izan behar du. Dituen ezaugarri bereziengatik, Gobernuak neurri egokiak hartu behar ditu eskaintzen duen hezkuntza- eta egoitza-zerbitzu funtsezkoa mantentzen dela ziurtatzeko.

Hori guztia ikusita, agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezartzen ditu gobernu-agintaritzak, auzitan dauden eskubideen funtsezko edukia bateragarri egiten saiatzeko.

Zerbitzu jakin batzuk ezinbestekoak dira, funtsezko eskubide batzuk betetzen dituztelako, eta zerbitzu horiek bermatu ahal izateko, greba-eskubideari muga batzuk jarri behar zaizkio. Eta arlo horretan eskumen eskusiboa gobernuak edukitzeak zera bermatzen du: muga horiek zuzenbidearen arabera ezarriko direla, eta, ezarri ere, gobernatzeko erantzukizuna eta ahalmena duenak baino ez dituela ezarriko.

Izan ere, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2 artikulua honako hau xedatzen du: «greba egiten denean edozein zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta geroraezina den beharrizaneko edozein zerbitzu eskaintzen duten enpresetan, eta larritasun bereziko egoerak daudenean, gobernuko agintaritzak beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko» eta «Gobernuak, era berean, horretarako beharrezkoak diren esku-hartze neurriak har ditzake».





Arau horretan –zeina konstituzionala baita (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [RTC 1981\11])–, Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2 artikularekin bat etorriz, honako hau ezartzen da: «Eskubide horren erabilera arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu jendearentzako funtsezko zerbitzuak mantenduko direla ziurtatzeko», azken batean, gobernu-agintaritzari ematen zaio ahalmena edozein motatako berme-neurri hartzeko, greba kasuan ezinbesteko zerbitzuei eusteko modua egon dadin, eta hori egiteko neurrietako bat administrazio-ebazpenaren bidez jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea da, eta lan-prestazio hori eskaini behar duten langileei haiek bete ditzaten eskatzea.

Horregatik, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2. artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da, eta greba deitu duten ELA eta LAB sindikatuei nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko sailei hitz egiteko aukera eman zaie, Jaurlaritzaren proposamenaren eragina jasango duten zerbitzuei eta langileei buruzko proposamenak egin ditzaten.

Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 3.1 artikulua Lan eta Justiziako sailburuari ematen dizkio azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan jasotako eskumenak (24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Dekretu horren 16 artikuluan, Lan eta Justizia Saila sortzen da, eta, beste egiteko eta jardun-arlo batzuen artean, lan-arloko legeriak lan-harremanei buruz ezartzen duena egikaritzeko egitekoa esleitzen zaio, eta, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetzen zaio zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzeraezineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeetan greba-eskubidea baliatzen dutenean autonomia-erkidegoko funtsezko zerbitzuei jardunean eutsiko zaiela ziurtatzeko beharrezko diren neurriak ezartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, Lan eta Justiziako sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko eta bertako erakunde autonomoetako langileek 2017ko martxoaren 22rako deitu den grebarako eskubidea balia dezakete –11:00etatik 14:00etara izango da–, ondoren adierazten diren funtsezko prestazioak eta haien ondoriozko gutxieneko zerbitzuak betetzekotan:

- a) Larrialdietarako eta bide-segurtasunerako zerbitzuei dagokienez: SOS DEIAK Zerbitzuan pertsona 1, Esku-hartze Zerbitzuan 3 pertsona (Larrialdiei erantzuteko Zuzendaritza), eta pertsona 1 Trafikoa Kudeatzeko Zentroan.
- b) Ikastetxe publikoetan, mendekoen plantillako pertsona batek egon beharko du goizeko txandan, eta beste batek arratsaldekoan, ikastetxe bakoitzean sartu ahal izateko kontrola bermatzeko eta erabat ezinbestekoak diren funtzionamenduko ekintzak burutu ahal izateko.
- c) Ibaiondo Ikastetxean, zerbitzuok mantenduko dira: Ikastetxeko ardura izango duen langile bat eta 5 hezitzaile –hezkuntza-talde bakoitzeko bat– goizeko txandan.





Bigarrena.- Ahal dela, zerbitzu horiek greba egin behar ez duten langileek emango dituzte, ezarritako gutxieneko zerbitzuak langileekin bete ezin direnean izan ezik.

Langileen ordezkariari entzun eta gero, Ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzak langileek bete beharreko eginkizunak esleituko ditu. Nolanahi ere, aurreko artikuluan eta indarrean dauden legeetan ezarritako mugak errespetatu beharko ditu.

Hirugarrena.- Agindu honen aurreko zenbakietan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldatuta edo geldialdien ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontrakotzat joko dira eta horiek egiten dituztenak erantzule izango dira, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.



Laugarrena.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

Bosgarrena.- Jakinarazten den egunean sartuko da indarrean agindu hau.

Seigarrena.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik kontaktzen hasita 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez daitekeela Lan Administrazioko Agintaritzan, agindua jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 20a



MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ
LAN ETA JUSTIZIA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y JUSTICIA
LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUA

